

ETXAURIN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA SORTZEKO PROZESA

PROCESO PARA LA CREACIÓN DE UNA COMUNIDAD ENERGÉTICA EN ETXAURI

4.SAOA	PARTAIDEAK / Asistencia
2023-04-27	Herritarak / Ciudadanía: 8 (3 emakume, 5 gizon)
18:00-19:30	Udala / Ayto.: Idoia Aritzala Etxarren (alkatea)
	Dinamizazioa / Dinamización: Maria Arretxe (Goiener), Uxune Alustiza (Emun Koop.E)

1. Errepasoa / Repaso

Aste Santuen aurretik egin genuenez azken saioa, Uxunek errepasso orokorra egin du:

- Prozesuaren kronograma eta lantaldeen dinamika.
- Azken saioan adostutako proiektuak.

Uxune ha hecho un repaso general de lo que se ha avanzado hasta ahora:

- Cronograma del proceso y dinámica de grupos de trabajo.
- Proyectos acordados en la última sesión.

2. Forma juridikoak / Formas jurídicas

Mariak bi forma juridikoren berri eman digu: elkartea edo kooperatiba. Alde nagusia da kooperatibak diru ekarpenak eta itzulketak egiteko aukera askoz gehiago ematen dituela. Elkarteen kasuan, dohaintzak bakarrik egin daitezke.

Maria nos ha informado sobre las dos formas jurídicas posibles: asociación y cooperativa. La principal diferencia es que una cooperativa da muchas más opciones a la hora de hacer aportaciones o retornos económicos. En el caso de las asociaciones, se pueden hacer solamente donaciones.

3. Proiektuetarako proposamena / Propuesta para proyectos

Mariak Etxauriko argindar kontsumoaren datu errealak ekarri ditu eta hainbat grafiko aztertu ditugu.

EBKren lehenbiziko proiektua instalazio fotovoltaikoa izatea adostu dugu: inbertsioa ez da hain handia, mantentze lan oso gutxi dauka, herritarra epe motzean hasiko dira onurak ikusten eta EBKra jendea erakartzen duen proiektu mota da.

Instalazioa dimentsionatzea izan beharko litzateke hurrengo lana: non egin, zenbat kW instalatu, zenbat jende beharko dugun... Baino erabaki dugu alderantziz egitea: lehenbizi, horrelako instalazio batean parte hartzeko prest zenbat jende egongo litzatekeen interesa jasoko dugu, interesa dutenei fakturak eskatu (konpromisorik gabe) eta datu errealekin zenbateko instalazioa beharko genukeen dimentsionatuko dugu, lekua erabaki...

Maria nos ha presentado diferentes gráficos con los datos reales de consumo eléctrico de Etxauri.

Hemos decidido que el primer proyecto de la CER será una instalación fotovoltaica: la inversión es moderada, el gasto de mantenimiento no es elevado, la ciudadanía empezará a ver beneficios a corto plazo y es un tipo de proyecto que atrae a gente nueva a la CER.

El próximo trabajo debería ser dimensionar el proyecto: ubicación, cuántos kW tendrá, cuánta gente se necesitará... Pero hemos decidido hacerlo al revés: primero, recogeremos el interés de las personas del pueblo en participar en una instalación como ésta, pediremos facturas a las personas interesadas (sin compromiso) y con esos datos reales dimensionaremos la instalación, decidir la ubicación...

Aldi berean, Valdizarberekin esplorazio bidea zabaltzea adostu dugu. Ideia da kontratu bilateral bat proposatzea Valdizarberi, merkaturatzaile batekin. Izan daiteke Goiener edo beste edozein. Kontratu horren bidez, EBKren parte diren Etxauriko bizilagunek prezio eta baldintza bereziak izango lituzkete Valdizarbek sortzen duen energia berritzagarria kontsumitzeagatik.

Al mismo tiempo, hemos acordado emprender la exploración del contrato bilateral con Valdizarbe. El contrato sería con una comercializadora, puede ser Goiener o la que se elija. Mediante ese contrato, las personas de Etxauri que formen parte de la CER tendrán precios y condiciones especiales para consumir la energía renovable que genera Valdizarbe.

4. Uztailaren aurretik, zer? / ¿Qué hacer antes de julio?

Maiatzak 11: fakturen talierra egingo dugu eta proiektuen aurkezpen irekia egiteko aprobetxatuko dugu.

Helburua: instalazio fotovoltaikoan interesa dutenen datu errealekin instalaziorako proposamen bat aurkeztea.

Aurrez fakturak jaso behar ditugunez, diptiko bat banatuko dugu buzorian: maiatzaren 11ko tailerraren berri emateaz gain, factura aurrez udaletxera eramateko eskatuko diegu, galdelegi txiki batekin batera (instalazio partikularrik badutenean, zenbat kW dituen...).

Kronograma berria adostu dugu:

- Maiatzak 11: fakturen talierra eta instalazio fotovoltaikoaren proposamen zehatzagoa.
- Maiatzak 25: ohiko saioa.
- Ekainak 15 edo 22: bi egunetako bat aukeratuko dugu maiatzaren 25ean.

Azken bi saio horietan, uztail eta abuzturako etxekek lanak adostuko ditugu lantalle bakotzerako, eta horien jarraipena egitea tokatuko da. Irailean itzuliko gara bi astez behingo erritmoarekin.

11 de mayo: haremos un taller de facturas y aprovecharemos para hacer la presentación abierta del proyecto.

Objetivo: presentar una propuesta para una instalación fotovoltaica con los datos reales de las personas interesadas.

Como hay que recabar información y facturas antes del taller, buzonearemos un tríptico: aparte de la convocatoria para el taller del 11 de mayo, pediremos que se entregue una factura en el ayuntamiento junto con un pequeño cuestionario (si tienen instalación particular, si están en camino, cuántos kW tiene...).

Hemos acordado un nuevo cronograma:

- *11 de mayo: taller de facturas y presentación de la instalación fotovoltaica.*
- *25 de mayo: sesión normal.*
- *15 o 22 de junio: elegiremos una de estas dos fechas el 25 de mayo.*

En estas últimas dos sesiones, pondremos tareas a cada grupo de trabajo para realizarlas durante julio y agosto, y en verano tocará hacer seguimiento de todo ello. Volveremos en septiembre con la frecuencia de dos semanas.

5. Lantaldeak aukeratzea / Elección grupo de trabajo

Bertaratutako bakoitzak lantalle bat aukeratu du (eranskinetan), eta lehen etxekek lanak banatu ditugu:

- Juridiko administratiboa: bi forma juridiko desberdinaren informazioa irakurtzen hasi.
- Proiektuak: autokonsumoari buruzko informazioa irakurtzen hasi.

Cada una de las personas asistentes hoy ha elegido un grupo de trabajo (anexos), y hemos puesto las primeras tareas:

- *Jurídico-administrativo: empezar a leer la información sobre las dos formas jurídicas.*
- *Proyectos: empezar a leer información sobre autoconsumo.*

- Komunikazioa: diptikoa kontrastatu. Lantaldeko inor ez dagoenez gaur, denok egingo dugu kontrastea emailez.
- *Comunicación: contrastar el diptico. Como no ha venido ninguna persona de este grupo, el contraste lo haremos entre todas y todos vía email.*

6. Itxiera / Cierre

Etxeko lanen errepasoa egin dugu.

Hurrengo saioa maiatzaren 11n izango da, 18:00etan.

Hemos repasado las tareas para casa.

La siguiente sesión será el 11 de mayo a las 18:00.

7. Egitekoak / Tareas

ZER	NORK
<ul style="list-style-type: none"> - Diptikoa prestatu. - <i>Preparar el diptico.</i> 	Goiener
<ul style="list-style-type: none"> - Diptikoaren edukiak kontrastatu maiatzaren 2an. - <i>Contrastar el contenido del diptico el 2 de mayo.</i> 	Denok <i>Todas y todos.</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Fakturak jaso udaletxean eta Mariari bidaltzen joan. - <i>Recoger facturas en el ayuntamiento y enviárselas a Maria.</i> 	Idoia.
<ul style="list-style-type: none"> - Bi forma juridiko desberdinen informazioa eta autokonsumoari buruzkoa bidali. - <i>Enviar información sobre las formas jurídicas y autoconsumo.</i> 	Maria
<ul style="list-style-type: none"> - Forma juridikoen informazioa irakurtzen hasi. - <i>Empezar a leer la información sobre formas jurídicas.</i> 	Lantalde jurid.admin. <i>Grupo jurid.adminis.</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Autokonsumoari buruzko informazioa irakurtzen hasi. - <i>Empezar a leer la información sobre autoconsumo.</i> 	Proiekturen lantaldea. <i>Grupo proyectos.</i>

8. Eranskinak / Anexos

Lantaldeen osaera, gaurko datarekin:

Los grupos de trabajo, a fecha de hoy:

Proiektuak	Juridiko-administratiboa	Komunikazioa
- Rafa - Esther - Juanma - Pablo	- Bego - Idoia	- Zuriñe